

# Euskal ekonomiaren bilakaera 2021IIIH

2021eko irailaren 23a



kutxabank  
empresas

1

**Laburpena**

2

**Euskal  
ekonomia**

BPGd-a  
Barne eskaria  
Kanpo sektorea  
Lan-merkatua  
Inflazioa  
Sektore publikoa  
Finantza-sektorea  
Adierazleak

3

**Ingurunea**

4

**Aurreikuspenak**

# 1. Euskal ekonomia 2021IIHn: suspertzea agertoki berri baterantz

**21IIHn**, EAEko **BPGd-ak** indar handiz egin du gora, % **18,6**raino (u/u), inguruan eman den igoerarik handiena. 2020ko bigarren hiruhilekoak jaitsierarik nabarmenarekin egin zuen bat eta, neurri handi batean, hori da oraingo gorako mugimenduaren arrazoia, ahaztu gabe hiruhilekoen arteko hazkundera ere positiboa izan dela, % 1,6ko igoerarekin. Txertaketan eman diren aurrerapausoei esker, eragileek konfiantza berreskuratu dute eta jarduerak gora egin du. Horren ondorioz, berreskuratze-fasea **beste agertoki batzuetara** bidean jarri da. Baikortasuna nagusi den honetan, 2022. urtearen hasieran pandemiaren aurreko mailetara itzultzea espero da.


**Amaierako Kontsumoak** hazkundera indartu du, konfiantza eta espektatibak hobetu diren testuinguru batean, osasun-arloan gertatu den hobekuntzarekin lotuta. **Kapitalaren Osaera Gordinak** ere antzeko portaera izan du eta, haren ekarpenari esker, barne-eskariaren ehunekoak inoizko igoerarik handiena izan du. Pandemiak gehien jo duen sektorea eta EAEko BPGd-aren osagai nagusia den **Zerbitzuen sektorea (% 15,5)** osotasuna indarrez suspertzen ari da, **Industriarekin (% 30,2)**, **Eraikuntzarekin (% 11,5)** eta lehen sektorearekin batera (**% 7,8**). Kanpo-sektorea ez da atzean geratu eta bere goranzko joerak isla dauka hala **Esportazioetan (% 30,1)** nola **Inportazioetan (% 29,8)**, eta horrek apur bat atzera bultzatu du hazkundera, **-0,3pp** aurreko hiruhilekoko -0,5pp-en aldean.

EAEko Kontu Ekonomikoen arabera, **21IIHko lan-okupazioa 944.794 enpleguraino** heldu zen, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean baino % **16,6** gehiago. Suspertze honen ondorioz, **134.207 langile gehiago** daude, sektore hauetan: **Zerbitzuak +97.735**, **Industria +26.510** eta **Eraikuntza +9.475**. Azkenik, lehen sektoreko enplegu kopuruak ere gora egin du, eta 487 langile gehiago daude orain. **PRAren** arabera, **langabezia-tasa % 10,3**ra jaitsi da 21IIHn (% 11,1 1Hn).


2021eko abuztura arte metatutako **diru-bilketa 9.708M eurokoa izan da**, hau da % **20,3**ko igoera. Diru-sarrera motaren arabera, 3.814M€ PFEZtik datoz (% 17,3) eta 3.608M€ (% 24,4) BEZaren bidez jasotakotik. Bi horiek dira diru-sarreraren modalitate nagusia. EAEn zorraren maila lehen hiruhilekoan % **16,4**koa izan da, pandemiaren eraginei aurre egiteko politiken ondorioz. Finantzaketako gaitasun eta beharrak orekatuta daude ia. Horrenbestez, baliabide ez-finantzarioak **2.658M€**-koak dira eta enpleguak, berriz, **2.673M€**; euskal sektore publikoak **-15M€**-ko **defizita** dauka 21IHaren amaieran.

## 2. Tuneletik atera eta agertoki berri baterantz

### Tasas de variación del PIB de la C.A. de Euskadi (%)




Fuente: Eustat. Cuentas trimestrales




**21IIHn**, EAEko **BPGd-ak** indar handiz egin du gora, % **18,6**raino (u/u), inguruan eman den igoerarik handiena. 2020ko bigarren hiruhilekoak jaitsierarik nabarmenarekin egin zuen bat eta, neurri handi batean, hori da oraingo gorako mugimenduaren arrazoia, ahaztu gabe hiruhilekoen arteko hazkundera ere positiboa izan dela, % 1,6ko igoerarekin. Txertaketan eman diren aurrerapausoei esker, eragileek konfiantza berreskuratu dute eta jarduerak gora egin du. Horren ondorioz, berreskuratze-fasea beste agertoki batzuetara bidean jarri da. Baikortasuna nagusi den honetan, 2022. urtearen hasieran pandemiaren aurreko mailetara itzultzea espero da.

## 2. Euskal ekonomia: kontsumoa eta inbertsioa aurrera, bai eta kanpo-sektorea ere



Barne-eskariaren suspertze nabarmenaren atzean, kontsumoaren (pribatua eta publikoa) zein inbertsioaren portaerak daude. Horri guztiari esportazio eta inportazioen hazkunde indartsuak bultzatutako kanpo-sektorearen dinamismo handiak lagundu dio.


## 2. Suspertze orokorra sektore guztietan



Fuente: Eustat, elaboración propia

Pandemiak gehien jo duen sektorea eta EAEko BPGd-aren osagai nagusia den **Zerbitzuen** sektorea (% **15,5**) osotasuna indarrez suspertzen ari da, **Industriarekin** (% **30,2**), **Eraikuntzarekin** (% **11,5**) eta are lehen sektorearekin batera (% **7,8**). Suspertze horren arrazioen artean daude txertaketa-erritmoa, mugikortasunaren berreskurapena eta konfiantza handiagoa.

## 2. Konfiantza itzuli da eta, harekin batera, kontsumoa eta inbertsioa



PIB Trimestral (demanda)	2020				2021	
	I	II	III	IV	I	II
GASTO EN CONSUMO FINAL	-3,0	-15,4	-5,9	-5,7	-2,5	18,1
-Gasto en consumo final de los hogares e ISFLSH	-4,8	-20,3	-8,5	-9,1	-3,7	22,6
-Gasto en consumo final de las AAPP	4,1	-3,0	3,6	7,2	1,6	5,2
FORMACIÓN BRUTA DE CAPITAL	-3,6	-23,0	-11,4	-8,4	-1,3	21,4
-Formación Bruta de Capital Fijo en Bienes de Equipo	-5,0	-30,1	-12,2	-5,9	1,9	41,3
DEMANDA INTERNA	-3,1	-17,2	-7,2	-6,4	-2,2	18,9
EXPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	-7,5	-30,1	-15,5	-14,8	-2,4	30,1
IMPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	-7,2	-26,4	-14,8	-12,7	-1,4	29,8
<b>PRODUCTO INTERIOR BRUTO a precios de mercado</b>	<b>-3,2</b>	<b>-19,5</b>	<b>-7,5</b>	<b>-7,6</b>	<b>-2,9</b>	<b>18,6</b>

**Amaierako Kontsumoak** hazkundera indartu du, konfiantza eta espektatibak hobetu diren testuinguru batean, osasun-arloan gertatu den hobekuntzarekin lotuta. **Kapitalaren Osaera Gordinak** ere antzeko portaera izan du eta, haren ekarpenari esker, barne-eskariaren ehunekoak inoizko igoyerarik handiena izan du.

## 2. Kanpoko dinamismo handia




Fuente: Eustat

Bigarren hiruhileko honetan argi eta garbi abian jarri den goranzko fase honetan, kanpo-sektorea ez da atzean geratu eta bere goranzko joerak isla dauka hala **Esportazioetan (% 30,1)** nola **Inportazioetan (% 29,8)**, eta horrek apur bat atzera bultzatu du hazkundera, **-0,3pp** aurreko hiruhilekoko -0,5pp-en aldean.



## 2. Eskaintza ere iguera orokorretara batu da




Fuente: Eustat


Eskaintzaren arloko sektore guztiek argi eta garbi egin dute gora, iragan ekitaldiko krisi okerrenetan gertatu ziren ehunekoen jaitsiera handien ondoren. Industria dago igueren buruan eta haren atzetik, Zerbitzuak eta Eraikuntza. Lehen sektorearen portaera ere oso positiboa izan da.

## 2. Oinarri ekonomikoa diren Zerbitzuak, argi eta garbi gora

### Estructura y Variación PIB IIT21



### Aportación al PIB IIT21 (pp)




Fuente: Eustat. Elaboración propia


**Zerbitzuen** sektoreak, balio erlatiboetan krisiaren kolpe gogorrena jaso zuen sektoreak, Industriari lehen lekua kendu dio hazkunderari ekarpen handiena egiten dioten sektoreen zerrendan. Izan ere, 21IIHn, Zerbitzuek EAEko BPGd-aren % **64,7** sortu dute eta, balio errealetan % **15,5** hazi ondoren, BPGd-ari **10pp**-ko ekarpena egin diote. Haren atzetik Industria daukagu, % **19,4**ko pisuarekin; % **30,2**ko hazkundera izan du eta **5,9pp**-ko ekarpena egin dio **hazkunderari**. Azkenik, **Eraikuntzak**, euskal BPGd-aren % **5,5**arekin, % **11,5** egin du aurrera balio errealetan eta **0,6pp**-ko ekarpena egin du.

## 2. Produktibitatea behera hiruhilekoan

### Estructura Empleo y PIB IIT21



### Productividad por sectores IIT21




Fuente: Cuentas económicas. Eustat. Elaboración propia

Maila orokorrean, produktibitateak atzera egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, lehen sektorearen salbuespen bakarrarekin. 21IIIHn, **Industria** dago guztien buru **enplegu bakoitzeko kalkulaturako produktibitatean**, enpleguaren % **20,8**arekin BPGd-aren % **24,6** sortu baitu. Gainontzeko sektoreetan, beharrezkoa den enplegu kopurua BPGd-ari egiten dion ekarpena baino handiagoa da, eta horrek produktibitatearen kontra egiten du.

## 2. Langabezia herritar aktiboen % 10,3raino jaitsi da


**Tasa de paro: IIT21**  
**10,3%**



Fuente: Eustat. Encuesta de población en relación con la actividad

134.000 empleados más que en IIT20

**Puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo**




Fuente: Cuentas económicas. EPA. Eustat.

EAEko Kontu Ekonomikoen arabera, **21IIHko lan-okupazioa 944.794 enpleguraino** heldu zen, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean baino **% 16,6 gehiago**. Suspertze honen ondorioz, **134.207 langile gehiago** daude, sektore hauetan: **Zerbitzuak +97.735**, **Industria +26.510** eta **Eraikuntza +9.475**. Azkenik, lehen sektoreko enplegu kopuruak ere gora egin du, eta 487 langile gehiago daude orain. **PR**aren arabera, **langabezia-tasa % 10,3ra** jaitsi da 21IIHn (% 11,1 1Hn).


## 2. Inflazioa lozorrotik atera da: aldi baterako edo modu iraunkorren?

### Inflación por sectores

Evolución CAE





Evolución de la Inflación



Fuente: INE

2021eko abuztuan, EAEko **KPI**aren urteko mugimendua % **3,3**koa izan da, eta pandemia garaian bizi izan duen loalditik atera da. Lehengaien eskasietatik eta elektrizitateko presioa. Azken horren handizkako prezioak gora eta gora ari dira, prezio hori zehazteko erabiltzen diren bere osagai batzuen eraginez eta prezioak maila altuetan doitzeko aukera ematen duen araudi baten babespean. BIS eta BdEaren arabera, prezioen gorakada aldi baterako izango da.

## 2. Diru-bilketaren portaera ona izan da eta oreka dago finantzaketa-beharretan




2021eko abuztura arte metatutako **diru-bilketa 9.708M eurokoa izan da**, hau da % **20,3**ko igoera. Diru-sarrera motaren arabera, 3.814M€ PFEZtik datoz (% 17,3) eta 3.608M€ (% 24,4) BEZaren bidez jasotakotik. Bi horiek dira diru-sarreraren modalitate nagusia. EAEn zorraren maila lehen hiruhilekoan % **16,4**koa izan da, pandemiaren eraginei aurre egiteko politiken ondorioz. Finantzaketako gaitasun eta beharrak orekatuta daude ia. Horrenbestez, baliabide ez-finantzarioak **2.658M€**-koak dira eta enpleguak, berriz, **2.673M€**; euskal sektore publikoak **-15M€**-ko **defizita** dauka 21I Haren amaieran.


## 2. Ziurgabetasunak aurrezki pribatua eta, beraz, gordailu pribatuak elikatzen ditu; kreditu pribatuak gora egin du

Últimos datos publicados por BdE al cierre del informe: mar 2021

### Créditos S. Privado



### Depósitos S. Privado




2021eko martxoko datuetan aurrezki pribatuaren hazkundera ikus daiteke, pandemiaren ezohiko egoerak piztutako ziurgabetasunaren aurrean. Horrenbestez, gordailu pribatuek gora egin dute (ESP: % 7,7 eta EAE: % 6,5) eta Kreditu pribatuaren dinamismoak ez du behera egin ez Espainian (% 2,7) ez EAEn (% 1,8).

## 2. Gordailu pribatuak kredituak baino gehiago hazi dira

Últimos datos publicados por BdE al cierre del informe: mar 2021

### % de variación de Créditos y Depósitos S. Privado





Fuente: BdE Elaboración propia

Lehen hiruhilekoan, **sektore pribatuaren gordailuen saldoa 85.175M eurokoa da (+% 6,5) eta kreditu pribatuena, 61.602M eurokoa (% 1,8)**. Aldea 23.573M euro inguruan mantendu da, azken abenduko erregistroa baino apur bat beherago. Kreditu pribatuek gordailu pribatuen aurrean duten pisu erlatiboa % 72,3koa da EAEn (% 88,3koa da, aldiz, Espainian).



## 2. Etxebizitzaren hipotekak tonu dinamikoari eutsi diote




Fuente: INE Elaboración propia

Azken hamabi hilabeteotako balio metatuei begiratuta, etxebizitzaren hipotekak **asko handitu direla EAEn (% 8,9)** eta **Espainiako merkatuaren intentsitatea ere suspertu dela (% 5,9)** ikus daiteke. Bat-egite prozesuan daude bi inguruok.

### 3. Berankortasun-tasa uzkurtu da





#### Evolución de la morosidad y cobertura




2021eko uztailean OSR kredituaren **berankortasun-tasak apur bat behera egin du** eta **% 4,39**an kokatu da (-0,005 portzentaje-puntu): aktibo zalantzarrien kopurua 574 milioi murriztu da (-% 1,06) eta OSR kredituaren saldoak 11.696 milioi egin du behera (-0,95pp hilabete berean).

## 2. Euskal ekonomia uneko adierazleen arabera...

MENSUALES	mar-21	abr-21	may-21	jun-21	jul-21
<a href="#">IPI (Eustat)</a>	21,7	61,0	30,9	10,5	2,1
<a href="#">Consumo de gasolina , gasóleo y fuelóleo™ (Cores)</a>	26,7	65,4	41,1	7,9	1,7
<a href="#">Matriculación de turismos (Ikerbide 1.25.3)</a>	136,8	3133,0	52,3	-16,7	-40,4
<a href="#">Hipotecas. Número (INE)</a>	36,2	21,8	46,2	-33,2	
<a href="#">Hipotecas. Importe (INE)</a>	33,1	30,1	52,7	-18,5	
<a href="#">Compraventa viviendas</a>	33,6	50,5	68,4	29,3	
<a href="#">Recaudación DDF: Total impuestos (GV)</a>	4,7	9,9	31,0	15,6	24,7



### 3. Euskal ekonomia: susperraldi argia



2021eko bigarren hiruhilekoan, euskal ekonomia **suspertzen** ari dela erakusten duten **arrastoak** ikus daitezke, erreferentziatzko ingurune hurbilean gertatzen ari den moduan, txertaketa-erritmo onak pandemia kontrolpean jarri duen unean. Urteko itxieraren aurreikuspenaren arabera, hazkundera aurreikuspen ofizialaren % 6,7 eta adostasunaren % 6,3aren inguruan ibiliko da.

### 3. Euskal ekonomia. Aurreikuspenak

<b>Euskadi</b>	<b>PIB</b>	
<b>Panel de Previsiones</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
<b>Confebask</b>	7,2	-
<b>Hispalink (VAB)</b>	7,0	6,8
<b>BBVA</b>	5,5	7,5
<b>CEPREDE</b>	5,7	5,6
<b>Gobierno Vasco</b>	6,7	5,7
<b>Funcas</b>	5,5	-
<b>Media</b>	<b>6,3</b>	<b>6,4</b>
<i>Máximo</i>	<i>7,2</i>	<i>7,5</i>
<i>Mínimo</i>	<i>5,5</i>	<i>5,6</i>

*Fuente: DEP-sept 2021*

## 4. Hirugarren hilabetez jarraian, gorako bidea

### IHS Markit Indice PMI compuesto de la Zona euro Septiembre 2021



[PMI: IHS Markit](#), Eurostat

**Euroguneko** ekonomia **gorako bidean** da oraindik ekitaldiko bigarren hiruhilekoan, PMI indizean ikus daitekeen moduan. Enpleguaren igoera bereziki handia izan da eta bi hamarkadetan izandako igoerarik azkarrenak bizi izan ditugu, ondasunen eta zerbitzuen eskari indartsu baten erdian. Nabarmentzekoa da Irlanda, Alemania eta Espainiaren portaera ona.


## 4. Aurreratuen eta garapenean direnen arteko zuloa gero eta handiago da, Espainiako ekonomiaren gorakada nabarmenarekin

### Pronóstico WEO



### Crecimiento del PIB en España



PIB: 17,5% (a/a) en IIT2021



FMIak iragan uztailean munduko ekonomiaz egin zituen aurreikuspenen harira, herrialde garatuen eta garapen bidean direnen hazkunde-tasen arteko **aldea handiago da**. Gertakari horren atzean herrialde batzuetako eta besteetako txertatze-mailak daude. Edonola ere, garapenaren inguruko ziurgabetasuna da nagusi batzuetan zein besteetan. Lehen taldean goranzko eta bigarrean beheranzko berrikuspenak egin ondoren, hazkunde orokorra % 6koa izango da 2021ean eta % 4,9koa 2022an.

**Espainiako ekonomiak** erantzun argia eman eta **% 17,5eko (u/u)** hazkunde sendoa izan du. Portaera horren atzean **barne-ekonomiaren** igoera dago, batez ere familien kontsumoan oinarrituta, bai eta kontsumo publikoan ere; **lan-merkatuaren** suspertzeak ere bide bera darama, eta igoerak azpimarratzekoak dira hala lanpostu kopuruari nola lan egindako orduei dagokienez. **Kanpo-sektorearen** erregistroa negatiboa bada ere, uzurtzea ez da aurreko aldietan bezain nabarmena.

## 4. Berraktibazioa prezioak bultzatzen ari da



Fuente:Funcas

Funcasen arabera, hirugarren hiruhilekoko **BPGd-aren aurreikuspenen** inguruko adostasunak kalkulatu du BPGd-aren jaitsiera **%11,2**koa izan dela. Eskari nazionala % 9,9 murriztu da eta kanpo-sektorearen ekarpen negatiboa -1,3pp-koa da. 2021erako **% 6,3**ko hazkundera aurreikusten da, eta portaera pixkanaka hobetuko da, hiruhilekoek aurrera egin ahala.



## 4. Espainiako ekonomiaren hazkunde aukerak

### PREVISIONES ECONÓMICAS PARA ESPAÑA, 2021-22

Tasas de variación anual en porcentaje, salvo indicación en contrario

	Datos observados				Previsiones Funcas	
	Media 1996-2007	Media 2008-2013	Media 2014-2019	2020	2021	2022
<b>1. PIB y agregados, precios constantes</b>						
<b>PIB</b>	3,7	-1,3	2,6	-10,8	6,3	5,8
Consumo final hogares e ISFLSH	3,7	-2,1	2,2	-12,1	7,6	4,3
Consumo final administraciones públicas	4,2	0,9	1,4	3,8	2,5	3,1
Formación bruta de capital fijo	6,1	-7,6	4,5	-11,4	6,3	10,5
Construcción	5,5	-10,7	3,9	-14,0	3,6	12,4
Equipo y otros productos	7,5	-2,7	5,0	-8,8	8,8	8,7
Exportación bienes y servicios	6,5	1,8	4,0	-20,2	11,4	11,9
Importación bienes y servicios	8,7	-4,0	4,4	-15,8	11,1	10,5
Demanda nacional (b)	4,4	-3,1	2,6	-8,8	6,0	5,3
Saldo exterior (b)	-0,7	1,8	0,0	-2,0	0,3	0,5
PIB precios corrientes: - miles de mill. de euros	--	--	--	1121,7	1207,1	1298,0
- % variación	7,3	-0,8	3,4	-9,9	7,6	7,5

Fuente: Funcas

Funcasen arabera, bigarren hiruhilekoko BPGd-aren igoera handiak uda osoan iraun zuen suspertze-prozesu bati hasiera eman zion, eta hobekuntzak ekarri zituen jardueran eta zerbitzuetan. Horren isla dira lan-merkatuan, ekoizpenean, kanpoko posizio komertzialean eta higiezinaren arloko jardueran izan diren aurrerapausoak.

Espainiako Bankuaren aurreikuspenak ere bide beretik doaz: % 6,3 urte honetarako eta % 5,9 2022rako.

## 4. Aurreikuspenen taula. Espainia

Última actualización

jul-21

**España**

Panel de Previsiones	PIB		IPC		PARO (EPA)	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
<b>AFI</b>	6,4	5,8	1,5	1,3	16,1	15,0
<b>BBVA</b>	6,5	7,0	2,0	1,2	15,7	14,2
<b>Caixabank</b>	6,0	4,8	1,7	1,3	15,7	14,6
<b>CEEM</b>	6,0	5,5	1,9	1,9	15,7	14,8
<b>CEPREDE</b>	6,4	4,8	1,3	1,2	15,0	14,0
<b>CEOE</b>	5,7	6,0	1,9	0,9	15,4	14,6
<b>Funcas</b>	6,3	5,8	2,2	1,4	15,8	14,7
<b>ICAE-UCM</b>	6,2	8,8	1,8	2,1	15,5	14,5
<b>IEE</b>	5,4	5,7	1,7	0,8	15,5	14,8
<b>Intermoney</b>	6,8	6,7	2,1	1,4	15,0	14,5
<b>CONSENSO (media)</b>	<b>6,1</b>	<b>6,1</b>	<b>1,9</b>	<b>1,4</b>	<b>15,7</b>	<b>14,9</b>
Máximo	6,8	8,8	2,2	2,1	16,6	16,0
Mínimo	5,4	4,8	1,5	0,8	15,0	14,0
<b>PRO MEMORIA</b>						
Gobierno (abr21)	6,5	7,0	-	-	15,2	14,1
BdE (sep21)	6,3	5,9	1,7	1,3	14,3	13,3
CE (jul 21)	6,2	6,3	2,4	1,4	-	-
FMI (abr 21)	6,4	4,7	1,0	1,3	16,8	15,8

Fuente: funcas

# Euskal ekonomiaren bilakaera 2021IIIH

2021ko irailaren 23a



kutxabank  
empresas